

FRESNO, CA
IGANDEA MAIATZAK 2, 2021/SUNDAY MAY 2, 2021
PAZKOA V IGANDEA/EASTER V SUNDAY (B)

MEZA SANTUA- ORDINARY OF THE MASS

HASIERAKO OHIKUNEAK-INTRODUCTORY RITES

ENTRANCE SONG

<p>Jainkoaren Ama, Ama guziz ona, Zaitzagun maita, beti, beti. (bis)</p> <ol style="list-style-type: none">1. Gure goresmenak onhar ditzazu Gaitz guzietarik, begira gaitzazu : Jesusek beti zu, entzuten baitzaitu Beti, beti.2. Zoin garbi zaren errepikatzen, Lur guzia nehoiz ez da baratzen. Gu ganik eskerrak ditutzu segurak, Beti, beti.3. Guk gure Amatzat, hartzen zaitugu, Zu maitatuz bizi nahi baitugu. Azken hatseraino, kantatuko dugu, Beti, beti.4. Hemengo hersturak ikusten tutzu, Guzien beharrak badakizkitzu. Beraz zure haurrak hemen beira-zitzu, Beti, beti.5. Beti berdin ahul gaizki gabilta, Hoin maiz erdiratuz zure bihotza... Gutaz izan zazu, oi urrikalmendu, Beti, beti.	<p>Mother of God, Mother that is all Good, May we love you, always, always.</p> <ol style="list-style-type: none">1. Accept our praises From all evil, keep us free: Cause Jesus always listens you Always, always.2. That you are Immaculate, whole earth Stops not in praising: Our gratitude for you is assured Always, always.3. We accept you as our Mother As we want to live loving you, We will praise you till our last breath, always, always.4. You see our challenged, Know the needs of all. Your children gaze at you Always, always.5. We are always feeble So often abandoning you: Have pity on us Always, always.
---	--

<p>† Aitaren, eta + Semearen, eta Izpiritu Sainduaren izenean. ⊙ Amen. AGURRA † Jaungoiko gure Aitaren, eta Jesukristo gure Jaunaren grazia eta bakea zuekin.</p>	<p>† In the Name of the Father, + and of the Son, and of the Holy Spirit. ⊙ Amen. Greeting † The grace of our Lord Jesus Christ, and the love of God, and the communion of the Holy Spirit be with you all.</p>
--	---

<p>☉ Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesukristo gure Jaunaren Aita.</p>	<p>☉ And with your spirit.</p>
---	---------------------------------------

DAMU OTOITZA- PENITENTIAL RITE

<p>† Haurrideak, aitor ditzagun gure bekatuak, mixterio sailduak ospatzeko gai izan gaitzen.</p> <p>† Jesus Jauna, bihotz urratuak salbatzera igorria: urrikal, Jauna. ☉ Urrikal, Jauna.</p> <p>† Jesus Jauna, bekatoreri dei egiterat etorria: Kristo, urrikal. ☉ Kristo, urrikal.</p> <p>† Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko, Aitaren eskuinean zaituguna: urrikal, Jauna. ☉ Urrikal, Jauna.</p> <p>† Urrikal dakigula Jainko guztiz ahaltsua eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzera. ☉ Amen.</p>	<p>† Brethren (brothers and sisters) let us acknowledge our sins, and so prepare ourselves to celebrate the sacred mysteries.</p> <p>† You raise the dead to life in the Spirit: Lord, have mercy. ☉ Lord, have mercy.</p> <p>† You bring pardon and peace to the sinner: Christ, have mercy. ☉ Christ, have mercy.</p> <p>† You bring light to those in darkness: Lord, have mercy. ☉ Lord, have mercy.</p> <p>† May almighty God have mercy on us, forgive us our sins, and bring us to everlasting life. ☉ Amen.</p>
---	---

AINZA ZERUETAN JAINKOARI/GLORY TO GOD IN THE HIGHEST

<p>Aintza zeruetan Jainkoari eta bakea lurrean Haren gogoko gizoneri. Hain handi eta eder zaitugulakotz, gora Zu, benedikatua Zu. Gorespen Zuri, ahuspez agur, eskerrak Zuri. Jainko Jauna, zeruko Errege, Jainko Aita guziahalduna. Jauna, Seme bakar, Jesu-Kristo, Jainko Jauna, Jainkoaren Bildots, Aitaren Seme: Zuk kentzen duzu munduko bekatua; urrikal, Jauna; Zuk kentzen duzu munduko bekatua; entzun gure deia. Aitaren eskuin-aldean jarririk zaude Zu; urrikal, Jauna. Zu bakarrik Saindua, Zu bakarrik Jauna, Zu bakarrik Goi-goikoa, Jesu-Kristo, Izpiritu Sainduarekin Jainko Aitaren argitan. Amen.</p>	<p>Glory to God in the highest, and peace to His people on earth. Lord God, heavenly King, Almighty God and Father, we worship You, we give You thanks, we praise You for Your glory. Lord Jesus Christ, only Son of the Father, Lord God, Lamb of God, You take away the sin of the world: have mercy on us; You are seated at the right hand of the Father: receive our prayer. For You alone are the Holy One, You alone are the Lord, You alone are the Most High, Jesus Christ, with the Holy Spirit, in the glory of the Father. Amen.</p>
--	--

MEZAKO OTOITZA-OPENING PRAYER

<p>† Egin dezagun otoitz + Jainko Jauna, zuk gaituzu salbatzen eta zure semetzat hartzen: ikus begi onez hain maite dituzun seme-alabak, eta Kristo baitan sinesten dutenez geroz, emaezu egiazko libertatea eta betiko bizia. Zure Seme Jesukristo gure Jaunaren bitartez, zurekin eta Espiritu Santuarekin batean, Jainko eta Errege bizi bait zira gizaldi ta gizaldietan.</p>	<p>† Let us Pray Almighty ever-living God constantly accomplish the Paschal Mystery within us, that those you were pleased to make new in Holy Baptism may, under your protective care, bear much fruit and come to the joys of life eternal.</p>
---	---

☉ Amen.

Through our Lord Jesus Christ, your Son, who lives and reigns with you in the unity of the Holy Spirit, God, for ever and ever.

☉ Amen.

HITZAREN LITURGIA-LITURGY OF THE WORD
LEHENENGO IRAKURGAIA-FIRST READING
Apostoluen Egintzak /Acts 9,26-31

Apostoluen Egintzetarik

Konbertitu-eta, **26** Paulo Jerusalemerat etorri zen, eta dizipuluekin elkarretaratu nahiz zabilan, bainan denak haren beldur ziren, ez baitzuten sinesten Kristoren dizipulu zela. **27** Orduan Barnabek berekin hartu eta apostolueri ereman zioten. Kondatu zioten nola Damaserateko bidean Paulok Jauna ikusi zuen, nola Jauna mintzatu zitzaion, eta nolako ausartziarekin Jesusen izenean mintzatu zen Damasen. **28** Ordotik, apostoluekin ibili ohi zen Jerusalemen, Jaunaren izenean ausartziarekin mintzaturik. **29** Greko-hizkuntzako Juduekin hizketan eta eztabadan ari zen; bainan hauek Paulo hil nahi zuten. **30** Haurrideek, hori jakitean Zezarearat ereman zuten, eta handik Tarzorat igorri. **31** Eliza bakean bizi zen Judea osoan, Galilean eta Zamarian. Jaunaren beldurrean, eraikitzen ari zen, eta handitzen, eta Izipiritu Sainduaren laguntzari esker emendaturik zion.

Jaunak errana!
Eskerrak zuri Jauna.

From the Acts of the Apostles

Then Peter stood up with the Eleven, raised his voice, and proclaimed: "Let the whole house of Israel know for certain that God has made both Lord and Christ, this Jesus whom you crucified." Now when they heard this, they were cut to the heart, and they asked Peter and the other apostles, "What are we to do, my brothers?" Peter said to them, "Repent and be baptized, every one of you, in the name of Jesus Christ for the forgiveness of your sins; and you will receive the gift of the Holy Spirit. For the promise is made to you and to your children and to all those far off, whomever the Lord our God will call." He testified with many other arguments, and was exhorting them, "Save yourselves from this corrupt generation." Those who accepted his message were baptized, and about three thousand persons were added that day.

☐ **The Word of the Lord!**

☉ Thanks be to God!

ERANTZUN-SALMOA/RESPONSORIAL PSALM 22:26-27, 28, 30, 31-32

R. Zutaz dezagun kantu eman, Jauna, fededun-biltzarrean.

Zu zaitut, Jauna, zu bihotz-kantu biltzarrean,
Jainkoa maite duten gizonen aitzinean.
Janen dute bai behartsu jendek ausarkian.
Jainkozaleek orduan kantu denek betan. **R.**

Mundu huntako guziak dira orroituko,
Eta guziak Jainkoa ganat itzuliko.
Jauna da-eta, Jauna, zuzenez denen Jainko.
Herri guziak behar baititu bere peko. **R.**

R. I will praise you, Lord, in the assembly of your people.

I will fulfill my vows before those who fear the LORD.
The lowly shall eat their fill;
they who seek the LORD shall praise him:
"May your hearts live forever!" **R.**

All the ends of the earth
shall remember and turn to the LORD;
all the families of the nations
shall bow down before him. **R.**

<p>Nere arima, nere bizia Hari dena, Nere ondoko jendea ere Jaunarena. Erranen baitu gerokoeri nor den Jauna, Sortuko diren jenderi:“ Hau du hau egina”. R.</p>	<p>To him alone shall bow down all who sleep in the earth; before him shall bend all who go down into the dust. R.</p>
---	--

BIGARREN IRAKURGAIA-SECOND READING

Jondoni Joaniren lehen epixtola/ 1 John 3, 18-24

<p>Jondoni Joaniren lehen epixtolatik</p> <p>Ene haurtxoak, 18 ez dezagun hitzez eta mihiz maita, bainan egitez eta egiaz. 19 Hortarik jakinen dugu egiarenak girela, eta Jainkoaren aitzinean bihotza bakean izanen dugu. 20 Zeren gure bihotzak kondenatzen bagaitu ere, gure bihotza baino handiagoa da Jainkoa, eta denak badazki. 21 Nere maiteak, gure bihotzak kondenatzen ez bagaitu, fidantzia osoan jo dezakegu Jainkoarenganat. 22 Eta eskatu guzia ardiesten dugu harenganik, haren manamenduak begiratzen baititugu, eta atsegin zaiona egiten. 23 Eta huna Jainkoaren manamendua: sinets dezagun haren Seme Jesu Kristo baitan, eta elkar maita, manatu daukun bezala. 24 Haren manamenduak begiratzen dituen Jainkoa baitan dago, eta Jainkoa haren baitan. Eta gure baitan dagolako seinalea hau da: Berak eman daukun Izpiritua.</p> <p>Jaunak errana! Eskerrak zuri Jauna.</p>	<p>From the First Letter of Saint John</p> <p>Children, let us love not in word or speech, but in deed and truth. Now this is how we shall know that we belong to the truth and reassure our hearts before him in whatever our hearts condemn, for God is greater than our hearts and knows everything. Beloved, if our hearts do not condemn us, we have confidence in God and receive from him whatever we ask, because we keep his commandments and do what pleases him. And his commandment is this: we should believe in the name of his Son, Jesus Christ, and love one another just as he commanded us. Those who keep his commandments remain in him, and he in them, and the way we know that he remains in us is from the Spirit he gave us.</p> <p><input type="checkbox"/> The Word of the Lord! <input checked="" type="radio"/> Thanks be to God!</p>
---	---

ALELUIA-ALLELUIA

<p>R. Aleluia, aleluia. Bai dohatsua Jaunaren baitan bizi dena: Iduri luke ur bazterrean den zuhaitza, Ordu denean fruitu onak baitakartza. R. Aleluia, aleluia.</p>	<p>R. Alleluia, alleluia. Remain in me as I remain in you, says the Lord; Whoever remains in me will bear much fruit. R. Alleluia, alleluia.</p>
--	--

EBANJELIOA-GOSPEL

<p>†Jauna zuekin <input checked="" type="radio"/> Eta zure izpirituarekin †Jesukristoren Ebanjelioa San I.(r) en liburutik</p>	<p>† The Lord be with you <input checked="" type="radio"/> And with your spirit † A Reading from the Holy Gospel according to N</p>
--	---

☉ Aintza Zuri, Jauna

† **Jaunak errana**

☉ Eskerrak Zuri, Jauna

☉ **Glory to you, O Lord.**

† The Gospel of the Lord.

☉ **Praise to you, Lord Jesus Christ.**

Jesu Kristoren Ebanjelioa Jondoni Joaniren liburutik/ John 10:1-10

Mundu huntarik bere Aitarenganat zoanean, Jesusek erran zioten bere dizipulueri: **1** “Ni naiz egiazko mahatsondoa, eta nere Aita da mahastizaina. **2** Nitau fruiturik emaiten ez duen aihena kentzen du, eta fruitua emaiten duena garbitzen, fruitu gehiago eman dezau. **3** Zuek garbi zirezte jadanik, erran dautzuetan hitzari esker. **4** Zaudezte nere baitan, eta ni zuen baitan. Aihenak, mahatsondoan egoiten ez bada, fruiturik eman ez dezakeen bezala, zuek ere berdin, ez bazirezte ni baitan egoiten. **5** Ni naiz mahatsondoa, eta zuek aihenak. Nere baitan dagonak, eta ni haren baitan, hark fruitu ainitz emaiten du, ni gabe ez baitezakezue deusik egin. **6** Nere baitan ez dagona kanporat botatzen eta eihartzen den aihena bezala da. Aihen eiharrak biltzen dira, surat botatzen eta erretzen. **7** Nere baitan bazaudezte, eta nere hitzak zuen baitan badaude, eska nahi duzuen, eta ukanen duzue. **8** Huntan agertzen da nere Aitaren aintza: fruitu ainitz eman dezazuen; orduan nere dizipulu izanen zirezte.”

☐ **Jaunak errana!**

☉ Eskerrak Jainkoari!

Jesus said to his disciples:

“I am the true vine, and my Father is the vine grower. He takes away every branch in me that does not bear fruit, and every one that does he prunes so that it bears more fruit. You are already pruned because of the word that I spoke to you. Remain in me, as I remain in you. Just as a branch cannot bear fruit on its own unless it remains on the vine, so neither can you unless you remain in me. I am the vine, you are the branches. Whoever remains in me and I in him will bear much fruit, because without me you can do nothing. Anyone who does not remain in me will be thrown out like a branch and wither; people will gather them and throw them into a fire and they will be burned. If you remain in me and my words remain in you, ask for whatever you want and it will be done for you. By this is my Father glorified, that you bear much fruit and become my disciples.”

☐ The Word of the Lord!

☉ Thanks be to God!

HOMILIA-HOMILY

SINESMENAREN AITORMENA-PROFESSION OF FAITH

APOSTOLUEN AITORMENA

☉ **Sinisten dut, sinisten dut!**

† **Sinisten dut Jaungoiko Aita ahalguztidun,**

† ☉ zeru-lurren egilea. Sinisten dut Haren Seme bakar Jesukristo gure Jauna, Izpiritu Sainduaren egitez sortu eta Andre Maria Birjinagandik jaio zena; Pontzio Pilatoren menpean nekaldua; gurutzean iltzatua, hila eta hobiratua izan zena; infernetara jaitsi eta hirugarren egunean hilen artetik piztu zena; zeruetara igan eta Aita Jaungoikoaren eskuin aldean jarririk dagoena; handik biziak eta hilak jujatzerat etorriko dena.

APOSTLES' CREED

† **I believe in God, the Father almighty,**

† ☉ Creator of heaven and earth, and in Jesus Christ, his only Son, our Lord, who was conceived by the Holy Spirit, born of the Virgin Mary, suffered under Pontius Pilate, was crucified, died and was buried; he descended into hell; on the third day he rose again from the dead; he ascended into heaven, and is seated at the right hand of God the Father almighty; from there he will come to judge the living and the dead.

☉ **Sinisten dut, sinisten dut!**

Sinisten dut Izspiritu Saindua, Eliza santu katolikoa, santuen elkartasuna, bekatuan barkamena, hildakoen piztea eta betiko bizia. ☉ **Amen.**

☉ **Sinisten dut, sinisten dut!**

I believe in the Holy Spirit, the holy catholic Church, the communion of saints, the forgiveness of sins, the resurrection of the body, and life everlasting.

☉ **Amen.**

JAINKO-HERRIAREN OTOITZA-PRAYER OF THE FAITHFUL

† Brothers and Sisters: As we celebrate virtually, for second year, our Basque Picnic of Fresno, let us place our needs before God our Father, rejoicing because Christ has triumphed over death and entered into glory.

- 1.** For our vulnerable populations: God, protect our elderly and those suffering from chronic disease. Provide for the poor, especially the uninsured. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
- 2.** For our local, state, and federal governments: God, help our elected officials as they allocate the necessary resources for combatting this pandemic. Help them to provide more tests. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
- 3.** For our scientific community, leading the task to understand diseases and communicate its gravity to citizens: God, give them knowledge, wisdom, and a persuasive voice. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
- 4.** For the homeless, unable to practice the protocols of social distancing in the shelter system: Protect them from disease and provide isolation shelters in every city. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
- 5.** That vaccines may be provided in justice and fairness to all, especially the most vulnerable populations and poor countries. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
- 6.** For families with young children at home for the foreseeable future: God, help mothers and fathers to partner together creatively for the care and flourishing of their children. For single mothers and fathers, grow their networks of support. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
- 7.** For frontline health care workers, doctors, nurses, volunteers, we thank you all for your vocational call to serve us and pray for God's blessing upon you. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
- 8.** For the departed brothers and sisters from our Community of Fresno during this past year, Lord, grant them eternal response, and to their love ones peace and consolation. **We pray to the Lord. Lord, hear our Prayer.**

† Lord God of justice and mercy, hear our prayers. Give our beloved dead the reward of their labors and grant us your consolation in our loss. We ask this through Christ our Lord.

R/. Amen.

EUKARISTIAREN LITURGIA-EUCHARISTIC LITURGY

OPARI ESKAINTZA-OFFERTORY

<p>AMA MAITE MARIA egiguzu lagun zure bitartez Jesus ikusi dezagun (bir).</p> <p>Aingeruzko lirio txit edergarria usain gozozko lore zerutik jaitsia. Gorde nazazu, Ama, guztiz maitatia ez dagidan zikindu onbide garbia (bir).</p>	<p>LOVING MOTHER MARY, come to our help, So through you, we may see Jesus. (2)</p> <p>Pretty angelical lily Fragrant flower, descended from heaven Keep me, Mother, all loving That I may not spoil my grace (2)</p>
---	---

<p>† Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa: zure esku zabaletik hartu dugu orain ekarri dautzugun ogi hau, lurraren indarrak eta gizonaren lanak sortua: hauxe eginen zaiku biziaren ogi.</p> <p>☉ Bedeinkatua Zu, Jauna, orai eta beti.</p> <p>† Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa: zure esku zabaletik hartu dugu orain ekarri dautzugun arno hau, mahats-ondoaren indarrak eta gizonaren lanak sortua: hauxe eginen zaigu betiko zorionaren edari.</p> <p>☉ Bedeinkatua Zu, Jauna, orai eta beti.</p> <p>† Haurrideak: egin dezagun otoitz, guztiek batean, Eliza osoaren oparia Jaungoikoari eskaintzerakoan.</p> <p>☉ Jainkoa gorestekoa eta gizona salbatzeko.</p>	<p>† Blessed are you, Lord God of all creation, for through your goodness we have received the bread we offer you: fruit of the earth and work of human hands, it will become for us the bread of life.</p> <p>☉ Blessed be God for ever.</p> <p>† Blessed are you, Lord God of all creation, for through your goodness we have received the wine we offer you: fruit of the vine and work of human hands; it will become our spiritual drink.</p> <p>☉ Blessed be God for ever.</p> <p>† Pray brothers and sisters, that my sacrifice and yours may be acceptable to God, the almighty Father.</p> <p>☉ May the Lord accept the sacrifice at your hands for the praise and glory of his name, for our good and the good of all his holy Church.</p>
---	--

OPARIGAIEN GAINEKO OTOITZA-PRAYER OVER THE GIFTS

<p>† Jainko Jauna, opari honen harreman miresgarriari esker, zure Jainkotasunean parte hartzea eman diguzu: zure egia ezagutu dugunez ger, emaguzu, izaera horri dagokion bizi modua eraman dezagula. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.</p> <p>☉ Amen.</p>	<p>† O God, who by the wonderful exchange effected in this sacrifice have made us partakers of the one supreme Godhead, grant, we pray, that, as we have come to know your truth, we may make it ours by a worthy way of life.</p> <p>Through Christ our Lord.</p> <p>☉ Amen.</p>
---	---

EUKARISTI OTOITZA-THE EUCHARISTIC PRAYER

<p>† Jauna zuekin</p> <p>☉ Eta zure izpirituarekin.</p>	<p>† The Lord be with you.</p> <p>☉ And with your spirit.</p>
--	--

† **Gora bihotzak.**

⊙ Jaunari dauzkagu.

† **Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.**

⊙ Egoki da eta zuzen.

† Bai egoki da eta zuzen nun nahi eta beti Zuri eskerrak ematea, Jauna, Aita guztiz saildu, Jainko guziahaldun betierekoari, Jesu-Kristo gure Jaunaren bitartez.

Berak, gure artean sortuz, gizon-emakume berri egin gaitu; kurutzean hilez, gure bekatuak ezeztatu; hilen artetik piztuz, betiereko bizia eman dauku, eta Zure gana iganez, Aita guztiz saildua, zeruko atak zabaldu.

Horra zergatik, aingeru eta sailduekin batean, gelditu gabe kantatzen dautzugu goresmen hau.

⊙ **Saildu, Saildu, Saildua, diren guzien Jainko Jauna. Zeru-lurak beterik dauzka zure distirak. Hozana zeru-gorenetan! Benedikatua Jaunaren izenean datorrena. Hozana zeru-gorenetan!**

† Lift up your hearts.

⊙ **We lift them up to the Lord.**

† Let us give thanks to the Lord our God.

⊙ **It is right and just.**

† It is truly right and just, our duty and our salvation, always and everywhere to give you thanks, Lord, holy Father, almighty and eternal God, through Christ our Lord. For by his birth he brought renewal to humanity's fallen state, and by his suffering, cancelled out our sins; by his rising from the dead, he has opened the way to eternal life, and by ascending to you, O Father, he has unlocked the gates of heaven.

And so, with the company of Angels and Saints, we sing the hymn of your praise, as without end we acclaim:

⊙ **Holy, Holy, Holy Lord God of hosts.**

Heaven and earth are full of your glory.

Hosanna in the highest.

Blessed is he who comes in the name of the Lord.

Hosanna in the highest.

EUKARISTIA OTOITZA II-EUCHARISTIC PRAYER II

† Saildu zira, bai, Jauna, eta saildutasun guziaren iturri: Saildu egizkitzu, bada, ogi eta arno hauk, zure Izpiritua ixuriz, Jesu Kristo gure Jaunaren gorputz + eta odol guretzat egin ditezen.

† Berak, saldu zutenean, eta bere gogoz kurutzera zoala, ogia hartu-eta, eskerrak emanez, zatitu zuen eta dizipulueri eman, erranez:

**HAR ZAZUE ETA JAN
GUZTIEK HUNTARIK:
HAU NIRE GORPUTZA BAITA,
ZUENTZAT EMANEN DENA**

† Afal-ondoan, berdin, kalitza harturik, berriz ere eskerrak emanez, dizipulueri eman zioten, erranez:

**HAR ZAZUE ETA EDAN
GUZTIEK HUNTARIK:
HAU NIRE ODOLAREN KALITZA BAITA,
BATASUN BERRI ETA BETIKOAREN
ODOLA,
ZUENTZAT ETA GUZIENTZAT**

† You are indeed Holy, O Lord, the fount of all holiness. Make holy, therefore, these gifts, we pray, by sending down your Spirit upon them like the dewfall, so that they may become for us the Body + and Blood of our Lord, Jesus Christ.

† At the time he was betrayed and entered willingly into his Passion, he took bread and, giving thanks, broke it, and gave it to his disciples, saying:

**TAKE THIS, ALL OF YOU, AND EAT OF IT,
FOR THIS IS MY BODY, WHICH WILL BE
GIVEN UP FOR YOU**

† In a similar way, when supper was ended, he took the chalice and, once more giving thanks, he gave it to his disciples, saying:

**TAKE THIS, ALL OF YOU, AND DRINK FROM
IT, FOR THIS IS THE CHALICE OF MY
BLOOD, THE BLOOD OF THE NEW AND
ETERNAL COVENANT, WHICH WILL BE
POURED OUT FOR YOU AND FOR MANY
FOR THE FORGIVENESS OF SINS.
DO THIS IN MEMORY OF ME**

**BEKATUAK BARKATZEKO IXURIKO DENA.
EGIZUE AU NIRE OROITGARRI**

† Hau da sinestearen misterioa.

☉ Ogi ardo hauek hartzean, zure heriotza dugu aitortzen, Zu, Jauna, etorri artean!

† Horrengatik, Jauna, zure Semearen heriotze eta piztea gogoan hartuz, biziaren ogia eta salbamenduaren kalitza eskaintzen daukitzugu, Zuri eskerrak emanez, aldarean zure zerbitzari onhartu gaitutzulakotz.

† Eta apalik eskatzen dautzugu, Kristoren gorputz-odolak hartzen ditugunak Izpiritu Sainduak bat egin gaitzala.

† Gogoan izan, Jauna, mundu guztian zabaldurik dagon zure Eliza: Eremazu maitasun osorat, **I.** gure Aita sainduarekin, **I.** gure Artzainarekin eta elizgizon guziekin batean.

† Gogoan izan, Jauna, (gaur) mundu huntatik Zugarat ereman duzun **I.** zure zerbitzaria. Zure Semearen heriotzean bat izan dena, piztean ere Harekin bat izan dadila.

† Gogoan izan ere, Jauna, pizteko esperantzan joan diren gure haurrideak eta hil guziak: har ditzazu zure aurpegiaren argitan.

† Urrikal zakizkigu, otoi, guk guziek betiko bizitza ardiets dezagun, Jaungoikoaren Ama Maria dohatsuarekin, Jose Saindua haren senarrarekin, apostolu sainduekin eta, gizaldi guztietan, zure adiskide izan diren sainduekin: heiekin batean gorets zaitzagun, Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

† Hunen bitartez, Hunekin eta Hunengan, Zuri Aita Jainko guzaldunari, Izpiritu Sainduarekin batean, ospe eta aintza guzia gizaldi eta gizaldi guztietan

☉ Amen.

† The mystery of faith.

☉ We proclaim your death, O Lord, and profess your Resurrection until you come again.

† Therefore, as we celebrate the memorial of his Death and Resurrection, we offer you, Lord, the Bread of life and the Chalice of salvation, giving thanks that you have held us worthy to be in your presence and minister to you.

† Humbly we pray that, partaking of the Body and Blood of Christ, we may be gathered into one by the Holy Spirit.

† Remember, Lord, your Church, spread throughout the world, and bring her to the fullness of charity, together with **N.** our Pope and **N.** our Bishop and all the clergy.

† Remember your servant **N.**, whom you have called (today) from this world to yourself. Grant that he (she) who was united with your Son in a death like his, may also be one with him in his Resurrection.

† Remember our brothers and sisters who have gone to their rest in the hope of rising again; bring them and all the departed into the light of your presence.

† Have mercy on us all, we pray, that with the blessed Virgin Mary, Mother of God, with the blessed Apostles, and all the Saints who have pleased you throughout the ages, we may merit to be co-heirs to eternal life, and may praise and glorify you through your Son, Jesus Christ.

† Through him, and with him, and in him, O God, almighty Father, in the unity of the Holy Spirit, all glory and honor is yours, for ever and ever.

☉ Amen.

JAUNARTEZEKO OHIKUNEA-COMMUNION RITE

† Salbatzaileak manatu eta erakutsiari jarraikiz, beldur gabe erran dezagun:

† At the Savior's command and formed by divine teaching, we dare to say:

<p>†☉ Gure Aita, zeruetan zirena: saindu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.</p> <p>Emaguzu gaur egun huntako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere gure zordunei barkatzen diegunaz geroz; ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen, baina atera gaitzazu gaitzetik.</p> <p>†Atera gaitzazu, Jauna, gaitz guzietarik; emaguzu bakea gure egunetan; zure urrikalmenduari esker, bekatutik garbi bizi gaitezen eta hersturetan sendo, betiko zorionaren esperantzan, Jesu Kristo gure salbatzailea noiz etorriko den zain gaudela</p> <p>☉ Zurea duzu erregetza, zureak ospe-ta indarra orai eta beti.</p>	<p>†☉ Our Father, who art in heaven, hallowed be thy name; thy kingdom come, thy will be done on earth as it is in heaven.</p> <p>Give us this day our daily bread, and forgive us our trespasses, as we forgive those who trespass against us; and lead us not into temptation but deliver us from evil.</p> <p>† Deliver us, Lord, we pray, from every evil, graciously grant peace in our days, that, by the help of your mercy, we may be always free from sin and safe from all distress, as we await the blessed hope and the coming of our Savior, Jesus Christ.</p> <p>☉ For the kingdom, the power and the glory are yours now and forever.</p>
--	---

PAKEAREN OHIKUNEA RITE OF THE PEACE

<p>†Jesu Kristo gure Jauna, Zuk errana da Apostolueri: “Bakea uzten dautzuet, nere bakea emaiten.” Beha zure Elizaren sinesteari, eta ez gure bekatuei; eta, zure gogoa den bezala, emozu Elizari bakea, eman batasuna. Errege bizi baitzira gizaldi eta gizaldietan.</p> <p>☉ Amen.</p> <p>† Jaunaren bakea beti zuekin.</p> <p>☉ Eta zure Izpirituarekin.</p> <p>† Haurrideak, emazue bakea elgarri.</p> <p>☉ Jainkoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: urrikal, Jauna.</p> <p>Jainkoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: urrikal, Jauna.</p> <p>Jainkoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: emaguzu bakea.</p> <p>† Huna hemen Jainkoaren Bildotsa, huna munduko bekatua kentzen duena. Zoriontsuak Hunen mahainerat deituak!</p> <p>☉ Jauna, ni ez naiz on Zu nere etxean sartzeko, baina errazu hitz bat, eta sendatuko naiz.</p> <p>† Kristoren Gorputza.</p> <p>☉ Amen.</p>	<p>† Lord Jesus Christ, who said to your Apostles, Peace I leave you, my peace I give you; look not on our sins, but on the faith of your Church, and graciously grant her peace and unity in accordance with your will. Who live and reign forever and ever.</p> <p>☉ Amen.</p> <p>† The peace of the Lord be with you always.</p> <p>☉ And with your spirit.</p> <p>† Let us offer each other the sign of peace.</p> <p>☉ Lamb of God, you take away the sins of the world, have mercy on us.</p> <p>Lamb of God, you take away the sins of the world, have mercy on us.</p> <p>Lamb of God, you take away the sins of the world, grant us peace.</p> <p>† Behold the Lamb of God, behold him who takes away the sins of the world. Blessed are those called to the supper of the Lamb.</p> <p>☉ Lord, I am not worthy that you should enter under my roof, but only say the word and my soul shall be healed.</p> <p>† The body of Christ.</p> <p>☉ Amen.</p>
---	---

JAUNARTZE ABESTIA/COMMUNION SONG

JESUS MAITEA ZAN	JESUS WAS LOVING
------------------	------------------

<p>Jesus maitea zan azken Afarian bera eman nahirik ardo ta ogian. Guretzat zelarik hiltzeko aurrean maitasunak zeukan bihotza menpean.</p> <p>(REF) Gurtu zagun beti Jesus Jainko Jauna, sakramentu hontan gurekin dagona.</p> <p>Apostoluei minez esan die: «Ni gaur saldua naiz, bihar hilgo nabe. Aitarenganako denbora zait bete, hona orain zenbat zaituedan maite.»</p> <p>Ogia harturik erran du Jainkoak: “Hau da nire Gorputz, zuek jatekoa”. Orobat harturik ontzian ardoa: “Hau da nire Odol isuritzekoa”.</p>	<p>During Last Super Jesus loved us, He offered himself in bread and wine, He gave himself totally for us to death Cause love had his heart prisoner.</p> <p>(REF) Let us always adore Christ the Lord, Who is with us in this sacrament.</p> <p>With pain he told his disciples: “today I will be sold, tomorrow will die. My time to the Father is accomplished, Look now how much I love you.”</p> <p>Taking bread said the Lord, “This is my Body, for you to eat. Same taking the chalice with wine: This is my blood, shed for you.”</p>
---	---

JAUNARTZE ONDORENGO OTOITZA-PRAYER AFTER COMMUNION

<p>+ Zaude beti, Jauna, zure herriarekin: eta zeruko sakramentuaz ase dituzunei emaezu, beren izate zaharra utzirik, betiko bizi berrian sar daitezela. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. R/. Amen.</p>	<p>+ Graciously be present to your people, we pray, O Lord, and lead those you have imbued with heavenly mysteries to pass from former ways to newness of life. Through Christ our Lord. R/. Amen.</p>
---	---

BUKAERAKO OHIKUNEA BEDEINKAPENA-FINAL BLESSING

<p>† Jauna zuekin. ⊙ Eta zure Izpirituarekin. † Benedika zaitzatela Jainko guzialdunak: Aitak eta Semeak + eta Izpiritu Sainduak. ⊙ Amen. † Zoazte Jaunaren bakean. ⊙ Eskerrak Jainkoari.</p>	<p>† The Lord be with you. ⊙ And with your spirit. † May almighty God bless you: the Father, and the Son, + and the Holy Spirit. ⊙ Amen. † Go forth, the Mass is ended. ⊙ Thanks be to God.</p>
--	--

Aingeru batek Mariari/The Angel of the Lord to Mary

<p>1. Aingeru batek Mariari Dio graziaz betea Jaungoikoaren semeari Emanen diozu sortzea.</p> <p>2. Jainkoaren nahi saildua</p>	<p>1. The angel to Mary You are full of grace The Son of God You will give birth.</p> <p>2. The Holy Will of God</p>
---	--

<p>Ni-baitan dadin egina Izan nadien amatua Bainan geldituz Birjina.</p> <p>3. Orduan Berbo Dibinoa Gorputz batez da beztitzen Oi, ontasun egiazkoa : Jauna gurekin egoiten.</p> <p>4. Otoitz zazu zure Semea Gure Ama amultsua Izan dezagun fagorea Ardiesteko zerua.</p> <p>Errepika</p> <p>Agur Maria, dena grazia Miresgarria, zoin ederra Gure bihotza hobenetarik Garbi garbia, zuk begira</p>	<p>Be accomplished in me So I may be loved But remaining Virgin.</p> <p>3. Then the Divine Workd Is dressed with flesh What a marvelous truth That God rests with us.</p> <p>4. Intercede before your Son Loving Mother, That we may have the grace Of eternal heaven.</p> <p>Refrain</p> <p>Hail Mary, full of grace, Miraculous, wonderful, From sin our heart Cleanse as you look on us.</p>
--	---





Besta Ederra! Enjoy the Picnic!



MIKE BETBEDER 1966 – 2020



Born in Paterson to Basque parents, as a child, Mike lived and attended school in the Basque Country with his older brother Jean for two-and-a-half years. This had a huge impact on his life. He developed a love for the country and culture and became fluent in Spanish. After returning from the Basque country, Mike attended Kings River Elementary School. He then attended Hanford High School, where he played soccer, graduating in 1984. Afterward, he started his own lawn care business with help and encouragement from his friend, Javier Etulain. Later, Mike decided to attend college and graduated in 1998 with a liberal arts degree from California State University, Fresno. Mike liked being his own boss and so continued his lawn care business. He soon married his best friend, Cherri Guevara, and together they had Michaela Lane, the center of Mike's life.

Goian Begol/May He Rest in Peace

MARIO ALBERTO BLANCO 1959-2020



Mario was born on December 21, 1959 in Chihuahua, Mexico to Salvador and Elizabeth Blanco. In 1964 Mario began one of the first chapters of his life when the family immigrated to the United States. Mario graduated in 1978 from Roosevelt High School and was a member of the track and cross-country teams. He often shared memories of his high school years. On January 11, 1986, he married Judy Kerber. They have two daughters, Melissa and Marisela.

Goian Begol/May He Rest in Peace

FRANCES CLEIX 1934 – 2020



Frances was born on July 8, 1934 in Utebo (Zaragoza), Spain. She peacefully joined our heavenly Father on July 7, 2020 a day short of her 86 th birthday. Growing up during the Spanish Civil War she and her five siblings endured many hardships. At the age of 20 she moved to Madrid, Spain where she became a telephone operator for the La Telefonica. In 1959 she went to visit her only sister, Pilar, in Los Angeles, California. It was then that she met the love of her life, Paco, and they were married three short months later. After they married, they moved to the Central Valley where they pursued their dream of owning their own dairy. Their business was successful and this gave them the opportunity to move back to Spain. They spent the next five years living in Pamplona with their two daughters surrounded by family along with the culture that they grew up in and were so proud of. Once returning to the United States they started a dairy in Hardwick, followed by one in Fresno, which finally led them to owning and operating Cleix Dairy in Hanford, California for 25 years.

Goian Rego/May She Rest in Peace

GEORGIANNE ERROTABERE 1928 – 2020



Georgianne Henriette Errotabere born in St. Albert, a town in the rural prairies of Alberta, Canada. She grew up in a large family of four brothers (Pierre, Phillip, Leo, Henry) and a sister (Mien). Around 1952, she moved to United States & began her life in Fresno, California initially working as a waitress at the Basque Restaurant, the Santa Fe. There she met her first husband Jean Errotabere, the two of them sharing the common language of French. They then moved to Riverdale where they raised their three sons Daniel, Jean, and Rémi on the family farm.

Goian Begoi/May She Rest in Peace

MARTIAL ETCHEVERRY 1928 – 2021



Martial was born on August 18, 1928 in Saint-Etienne de Baigorry, France. He came to the United States in 1937 with his parents and 4 brothers. They settled in Ely, Nevada. In 1945, they moved to Stockton California. During this time he worked at different jobs, even working in the family sheep business. He worked for P.G. & E. for a few years until he decided to buy his own truck. He worked many long days hauling hay. In 1950, he married the love of his life, **Marie Therese Lacondeguy**. He drove trucks until 1962 when he and his wife bought a small country store in Madera, which they called Etcheverry's Market. They worked the market themselves in the beginning, but later they hired help and their son Pierre joined them in the store business after his graduation from high school. Their daughter Denise worked there part-time while going to college. During the time he had the market he helped many people.

Goian Begol/May He Rest in Peace

STEPHEN ETCHEVERRY 1983 – 2013



Steven Michael Etcheverry May 4, 1983 - Aug 22, 2013 Steven Michael Etcheverry passed away on Aug. 22 at his home surrounded by his family. He was 30 years old. Steven was born on May 4, 1983 to Michael & Maria Etcheverry in Modesto, California.

Goian Begol/May He Rest in Peace

HELEN RUPPEL 1931-2020



Over 40 years helper at Our Lady of Victory Church and school, as well as San Joaquin Memorial High School in Fresno. Also a member of Infant Jesus of Prague group. Survived by husband Stanley of 62 years and sons Stan, Steve and Helen.

Goian Begol/May She Rest in Peace

HECTOR VELAZQUEZ 1944 – 2020



Hector Velazquez Mendoza died peacefully in company of his loved ones on October 1, in Clovis, CA, at the age of 75. He was born on December 12, 1944 in Toluca, Mexico. After a long career as an executive in Aeroméxico, he moved to the United States to provide the American Dream for his family in 1987. Wife Bernice, daughter B. Franchesca Amezola, sons, Hector Velazquez Jr. and Bruno Velazquez

Goian Begol/May He Rest in Peace